

TITULUA ESKATZEA

Gradu amaierako lanaren defentsa gaindituta eta espedientea itxi ondoren, ikasleak titulua eskuratzeko eskaria egin eta ordaindu beharreko tasak ordaindu ahal izango ditu **GAUR** plataformaren bidez.

Agiriak prestatu:

- Gomendatzekoa da eskaeran txertatu beharreko dokumentuak eskaneatuta izatea, ahal delarik jpg eta gif formatuetan. NANA bi agiriz osatuta egongo da, NAN aurrealdea eta NAN atzealdea.
- Eskaera egiteko, ikasleak aplikazio informatikoan ageri den identifikazio agiri bera erabili behar du (NAN, identifikazio txartela, pasaporte...). Aldatu nahi badu, aldaketa grabatu behar da ikastegiko idazkaritzan eskaera egin aurretik.
- Prezioak ordaintzetik salbuesteko edo prezioak murrizteko. Baldin eta ikasleak prezioak ordaintzetik salbuetsita egoteko edo prezioak murrizteko eskubiderik badu, datu hori gaurkotuta egon behar da ikastegiko idazkaritzaren sisteman eskaera hasi baino lehen.

Nahiz titulua lortzeko beharrezkoa ez den, gomendagarria da aldi berean **IKASLEAREN ZIURTAGIRI AKADEMIKO** bat (titulazioan egindako irakasgai guztien kalifikazioak eta espedientearen batez bestekoa jasotzen dituen ziurtagiria) eta, honetarako, GAUR bidez ordaindu beharko ditu ordaindu beharreko tasak.

TITULUAREN EUROPAR GEHIGARRIA (TEG)

tituluaren gehigarri europarra hirueleduna izango da: gaztelaniaz, euskaraz eta ingelesaz eta helburua da Europan irakasten diren goi mailako titulazioen gardentasuna handitzea, eta horien aitormen akademiko eta profesional erraztea. Lehendabizikoan eskatuta, dohainekoa da.

TGE emateko aurretik bete behar den **aurrebaldintza: titulua ordainduta edukitzea eta ikastegiak onartuta.**

TGEa **ikastegiko idazkaritzan jasoko** da, berori eskatu eta, arazo teknikorik ezean, batez beste hilabetera.